



ikerketak



**EMAKUMEEN ELKARTE
MUGIMENDUA BIZKAIAN:
Diagnostikoa eta belaunaldi berriek
elkarte sarean duten eragina**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

**EMAKUMEEN ELKARTE
MUGIMENDUA BIZKAIAN:
Diagnostikoa eta belaunaldi berriek
elkarte sarean duten eragina**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

IZENBURUA: "Emakumeen elkarte mugimendua Bizkaian: Diagnostikoa eta belaunaldi berriek elkarte sarean duten eragina"

AUTOREA: 97 S&F, S.L.

EDITOREA: Bizkaiko Foru Aldundia
Ahdun Nagusiaren Kabinetea

KOORDINAZIOA: Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiketarako Arloa

**DISEINU GRAFIKOA
ETA MAKETAZIOA:** Arrin. Komunikazioa eta Diseinua

DATA: 2007ko abendua

ALE-KOPURUA: 1.000

DESKRIBATZAILEAK: Elkarte mugimendua, emakumeak, datu estatistikoak, azterlana

INPRIMAKETA: Gráficas Santamaría, S.A.

ISBN: 978-84-95790-13-2

LEGE GORDAILUA:

- AZTERLANARI APLIKATUTAKO HELBURUAK ETA METODOLOGIA
- AZTERKETA KUANTITATIBOA: EKINTZAK
- AZTERKETA KUALITATIBOA: EKINTZAK
- DATU KUANTITATIBOAK
- 2001-2007 ALDERATZE PANORAMA
- DATU KUALITATIBOAK
- GOMENDIOAK ETA NEURRIAK
- GRAFIKOAK ETA TAULAK



AZTERLANARI APLIKATUTAKO HELBURUAK ETA METODOLOGIA



GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNERAKO ETA GENERO POLITIKETARAKO FORU PLANA (2004-2007) GARATZEN LAGUNTZEA

EMAKUME ELKARTEGINTZA SUSTATZEA (2.2. helburua)

Gizonen eta Emakumeen Arteko Berdintasunerako Batzorde iraunkorra Sortzea Bizkaiko emakume elkartegintzako ordezkariekin, herritarrentzako **informazio, parte-hartze eta jarraipen** organo izan dadin. (2.2.1. ekintza)


Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako **FOROA**

1. AZTERLANA
Emakume elkartegintzaren gainean Bizkaian

2. AZTERLANA
Emakume elkartegintzaren gainean Bizkaian



BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAREN GAINEKO 2. AZTERLANA: Belaunaldi berrien diagnostikoa eta eragina elkarte sarean



Bizkaiko Emakume Elkarten Datu Basea egitea, iturri ezberdinetako informazioa alderatuz:

❖ BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

1. ITURRIA

Direktoria (Gizon eta Emakumeen Arteko Berdintasunerako Foroa)

http://www.bizkaia.net/ahaldun_nagusia/Berdintasunerako_Foroa/paginas/ca_asociaciones.htm

2. ITURRIA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakume Elkarten Gida

http://www.bizkaia.net/ahaldun_nagusia/Berdintasunerako_Foroa/paginas/ca_guiaasociac.htm

❖ EMAKUNDE

3. ITURRIA

Bizkaiko Emakume Elkarten Gida

http://www.emakunde.es/indice_c.htm



- ❖ Horiez gain, esfortzu handia egin da beste iturri batzuk topatzeko, adibidez: Foro Birtualak, helbideak eta telefonoak eskuratzeko nolabaiteko informazioa eman ziezaguketan web orrialdeak, hiritarren informaziorako 010 telefonoa eta baita pertsonalki behin baino gehiagotan eskura genuen helbidera bertaratzea ere.
- ❖ Datu Basea sortu zen 138 elkarterekin.
- ❖ 4 elkarteren inguruan ez zen daturik lortu:
 - Atxurkulu
 - Euskadiko Guraso Bakarreko Familiak
 - Igualan
 - Literarte elkarteak
- ❖ Galdera sorta gainerako 134 Emakume Elkarteei helarazi zitzaizen eta 113 Elkartek erantzun egin zuten. Erantzun indizea hazi egin zen % 28tik (2001ean) % 82ra.
- ❖ Galdera sorten bidalketa eta jasoketa: 2006ko urriaren 6tik 2007ko otsailaren 2ra.



Bidalitako galdera sorten egoera landa lana amaitzean

Jaso ez diren galdera sortak: 21



Jaso diren galdera sortak: 113



1. FASEA: AZTERKETA KUANTITATIBOA

134 GALDERA SORTA BIDALI DIRA

Jasotakoak



Telefono
bidezko 20
inkesta



Aurrez aurreko
31 inkesta



8 inkesta e-mail
bidez



54 inkesta
posta bidez



2. FASEA: AZTERKETA KUALITATIBOA

Elkarrikusketa sakonak

15

Elkarrikusketa



AZTERKETA KUANTITATIBOA: EKINTZAK




AZTERLAN KUANTITATIBOKO EKINTZAK

1. EKINTZA

ELKARTEEN DATUEN GAINEKO JARRAIPENA
ETA EGUNERATZEA

2. EKINTZA

BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEEN SAREAREN
EGOERAREN AZTERKETA



Bizkaiko Emakume Elkarten Datu Basearen eguneratzea



- ❖ Elkartearen izena
- ❖ Helbidea eta posta kodea
- ❖ Udalerria
- ❖ Telefonoa
- ❖ Posta elektronikoa
- ❖ Harremanetarako pertsona
- ❖ Elkartearen sailkapena sozietatearen xedea gorabehera



Bizkaiko emakume elkarten sarearen egoeraren azterketa



❖ 1. BLOKEA: Ezaugarri nagusiak

❖ 2. BLOKEA: Baliabideak


❖ 3. BLOKEA: Elkarte sarea

❖ 4. BLOKEA: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna



AZTERKETA KUALITATIBOA: EKINTZAK





SAILKAPEN ALDAGAIK

1. aldagaia

BELAUNALDIKOA



BELAUNALDI GAZTEA *versus* BELAUNALDI HELDUA

2. aldagaia

ELKARTEGINTZA MUGIMENDUAREN PROFILA*



- ❖ GIZARTE ETA KULTURA ARLOAK
- ❖ LANA ETA PRESTAKUNTZA
- ❖ EMAKUMEEN ESKUBIDEAK
- ❖ GIZARTEAREN ETA LAGUNTZAREN ARLOAK / ALARGUN ELKARTEAK
- ❖ BIZI KALITATEA

* Sailkapen hau Bizkaiko Foru Aldundiko Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako Foroan ezarri ziren arloetan oinarrituz egin da.



Elkarrikusketa egin zuten Bizkaiko Emakume Elkarteak

(*)	IZENA	MOTA	BELAUNALDIA
1	Peñascal Prestakuntza Zentroa	Enplegua eta prestakuntza	Gaztea eta heldua
2	Haurdun	Bizi kalitatea	Gaztea
3	Bizkaiko Emakume Alargunak	Gizarte laguntzarako arloa / Alaroun elkarteak	Heldua
4	Aritu	Gizarte laguntzarako arloa / Alargun elkarteak	Gaztea
5	Roda	Gizarte eta kultura arloa	Heldua
6	Dokumentazio zentroa	Emakumeen eskubideak	Gaztea eta heldua
7	Acambi	Bizi kalitatea	Gaztea eta heldua
8	SXXI	Enplegua eta prestakuntza	Heldua
9	Munduko Emakumeak, Babel	Gizarte eta kultura arloak	Heldua
10	Margotu	Enplegua eta prestakuntza	Gaztea
11	Eskuz Esku	Enplegua eta prestakuntza	Gaztea
12	Mirra	Bizi kalitatea	Heldua
13	Aldarte	Emakumeen eskubideak	Heldua
14	Aluen Poza	Emakumeen eskubideak	Gaztea
15	Emaisia	Gizarte eta kultura arloak	Gaztea

(*) Elkarrikusketen ordena egin ziren daten arabera da.



DATU KUANTITATIBOAK



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

1. BLOKEA: Ezaugarri nagusiak

→ **(3G)** [Emakume Elkarteen eraketa urtea](#): Bizkaian, emakumeen elkartegintza 90eko hamarkadan jazo zen (elkarteen % 50a sortu zen). Aitzitik, elkartegintza ez da geldirik geratu azken urte hauetan, izan ere XXI. mendean bete ditugun urte hauetan Bizkaiko emakume elkarteen % 25a sortu da.

→ **(1G)** Elkarteen [kokapen geografikoa](#) ez da hiriburuan pilatzen, udalerrri ezberdinetan banaturik dagoelako. Edonola ere, [azterketa xehatuagoa eginda](#), antzeman daiteke elkarte gehienak Nerbioi ibaiaren bi ertzetan kokaturik daudela (Ezkerraldean % 28,9a eta Eskuinaldean % 13,6a).



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

1. BLOKEA: Ezaugarri nagusiak

→ **(3G eta 1G gurutzatuta)** Aitzitik, [emakumeen elkartegintzaren hastapenak Bizkaian](#) Bilbon izan ziren, 1990a baino lehen % 34a eratu zelako, probintziako gainerako tokietan sortutako % 12aren aldean.

→ **(2G)** [Gai arlo](#) ezberdinei dagokienez –gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako Foroak eginiko banaketa-, antzeman dugu elkarte gehienak gizartearen eta kulturaren arloetan biltzen direla (% 55). Gainerako elkarteak hurrengo moduan banatzen da: emakumeen eskubideak (% 17,1), gizartearen eta laguntzaren arloa / alargun elkarteak (% 12,6), enplegua eta prestakuntza (% 8,1) eta bizi kalitatea (% 7,2)*.

* Elkarteen sailkapena Bizkaiko Foru Aldundiak Foroan eginiko sailkapenaren, 2G (sozietatearen xedea) delakoaren, eta berriro ere zalantzarik bazen edo multzo ezberdinetan sailka zitezkeen kasuan elkarteei galdetutakoaren arabera egin da.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

1. BLOKEA: Ezaugarri nagusiak

→ (4G) Jarduteko lurralde eremu nagusiak (erantzun anitza: eremu ezberdinak adierazi dituzte): **Udalerria (% 58) eta Probintzia (% 28)**.

→ (5G) Jarduteko gai eremu nagusiak (erantzun anitza: eremu ezberdinak adierazi dituzte): **Kultura (% 63), Gizarte babesa (% 29), Denbora librea (% 26), Eskulanak eta artisautza (% 24) eta Hezkuntza (% 23)**.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Baliabide materialak)

→ (7G) Lokala (Elkartearen egoitza): Elkarte gehienek erakunde publiko/pribaturen batek lagatako lokala erabiltzen dute (% 61ak). Gainerakoek erosi (% 9) edo alokatu egiten dute (% 13) eta gehienetan erabilera partekatzen dute kostuak aurrezteko.

→ (7G eta eskualdearen araberako kokapen geografikoa gurutzatuta). Ikusten da Bilbon kokatutako elkarteak direla —proportzioan— lokal lagatu gutxiago dituztenak eta bestelako hautabideak bilatzen dituztenak. Horrela, ohikoena alokairua izan ohi da, bai erabilera propiorako, bai erabilera partekaturako. Eskuinaldean, Ezkerraldean, Gernika-Bermeo eta Enkarterrietan kokatutako elkarteek konpondu dute —nolabait— lokala izatearen arazoa. Halaber, azpimarratzekoa da eskualde horiek erakunderen batek lagatako lokal gehiago dituztela, Plentzia-Mungiak bezalaxe.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Baliabide materialak)

→ **(6G) Beste baliabide batzuk:** Orokorrean baliabide moduan erabiltzen diren artean telefonoa (% 87), ordenagailua (% 78) eta inprimagailua (% 74) daude. Elkarteen erdiak baino gutxiagok, % 42a eta % 28aren artean, ditu gainerako baliabideak –Internet, faxa, bibliografia fondoa eta fotokopiagailua-.

→ **(6G eta 16G gurutzatuta)** Baliabide materialak eta beste horiek erabiltzen dituzten elkartekideen batez besteko adina kontuan hartuta, esan dezakegu badela belaunaldien arteko aldea baliabide materialei dagokienez. Elkartekideek 65 urtetik gora dituzten elkarteen arteko % 8ak bakarrik du ordenagailua eta inprimagailua; 50etik 65 urtera bitartekoen kasuan % 32koa da kopurua eta elkarteen % 70ak baino gehiagok 50 urte edo gutxiagokoen kasuan.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Baliabide materialak)

→ (6G eta eskualdeen araberako kokapen geografikoa gurutzatuta)

Baliabide materialak eta horiek dituzten elkarteen kokapen geografikoa ikusita, argi ikusten da Bilbo Handian eta Plentzia-Mungian kokatutako elkarteak direla neurri handiagoan horiek dituztenak.

→ Aitzitik, Internet baliabidea aztertuz gero, nabarmenki jaisten da erabilera Ezkerraldean eta Plentzia-Mungian. Interneterako sarbidea, berriz, bereziki garrantzitsua da Eskuinaldean, eta horrek agerian uzten du Teknologia Berrien aurrerakada handiagoa dela historikoki eskuratze ahalmen handiena izan duen eremu geografikoan.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Giza baliabideak)

- **(8G) Tamaina (elkartekide kopurua)**: emakume elkarte gehienek (% 52) 150 kide baino gutxiago dituzte.
- **(8G)** Aitzitik, elkarteen tamaina anitza da, horietatik ia % 20ak dituelako 300 kide baino gehiago.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Giza baliabideak)

Kontratatutako langileak eta borondatezko langileak

→ **(9G) Kontratatutako langileak:** % 19ak bakarrik du kontratatutako langileren bat, eta horietatik ia % 60ak du kontratatutako langile 1, 2 edo 3.

→ **(10G) Borondatezko langileak:** Elkarteen % 87ak baino gehiagok ditu borondatezko langileak eta horietatik % 90ak du borondatezko 4 langile edo gehiago.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Giza baliabideak)

Kontratatutako langileak eta borondatezko langileak Eskualdeka

Argi ikusten da Bilbo Handian eta Durangaldean kokatutako elkarteak direla kontratatutako langileak dituztenak. Aitzitik, Enkarterrietan, Arratia-Nerbioin eta Plentzia-Mungian kokaturiko elkarteek ez dute kontratatutako langilerik. Horrek esan nahi du hiriburutik gertu kokaturiko elkarteen profesionalizazio maila altuagoa dela (Bizkaiko emakume elkartegintzaren hazia).

→ Borondatezko langileei dagokienez, antzeman daiteke anitzak direla eskualde guztietan baina bereziki Enkarterrietan, Arratia-Nerbioin eta Plentzia-Mungian kokaturiko elkarteetan, ikusi dugun moduan ez dutelako kontratatutako langilerik.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Baliabide ekonomikoak)

→ **(11G)** Elkarte gehienek (% 53) 10.000 €-tik beherako [aurrekontua izan zuten 2006an](#) eta % 14ak bakarrik gainditu zuen 15.000 €-en kopurua.

→ **(12G, 13G eta 14G)** Baliabide horiek elkartekideek ordaindutako [kuotetatik](#) —elkarteen % 74ak 20 € azpitiko kuota zehatza du— eta [dirulaguntza publikoetatik](#) datoz gehien bat. Edonola ere, azpimarratzekoa da dibertsifikazioa ikusten dela baliabide pribatuen bilaketan eta lorpenean eta, baliabide publikoez gain, iturri pribatuez eratutako geroz eta baliabide sorta anitzagoa dutela.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

2. BLOKEA: Elkarteen baliabideak (Baliabide ekonomikoak)

→ **(14G)** Elkarte gehienek adierazi dute **laguntza edo diru-laguntzaren** bat jaso dutela Bizkaiko Foru Aldunditik (%83,7ak) edo beren Udalerrietatik (% 78,8ak) eta Emakundetik (% 75ak).

→ **(15G)** **Jasotako laguntzak** ikastaroetarako eta tailerretarako (% 57), hizketaldietarako, hitzaldietarako, kongresu eta foroetarako (% 38) eta irteera kultural, ibilaldi eta bidaietarako (% 33) erabili dira.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

3. BLOKEA: Elkarte sarea (Kideak eta parte-hartzea)

→ **(16G)** Kide direnen batez besteko adina bi multzo ia berdinetan banatzen da: 50 urte edo gutxiagokoak (elkartekideen % 47a baino gehiago) eta 50 urtetik gorakoak (% 52,4).

→ **(16G)** Gainera, kide gehienak 36tik 65era bitarteko adin tartean kokatzen direla ikusten da (elkartekideen % 70a baino gehiago). Hori dela eta, beharrezkoak dira beste mota batzuetako aldagaiak jartzea elkarteak kideen arabera sailkatzeko (***belaunaldi heldua vs. belaunaldi gaztea*** aldagaia, azterketa kualitatiboan erabilitakoa).

→ (**elkarte bakoitzeko kide gehien adina eta 8G elkartearen tamaina**) Azpimarratzekoa da emakume gazteenak tamaina txikiagoko elkarteetan taldekatzen direla. Aitzitik, helduenak mota guztietako elkarteetan taldekatzen dira.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

3. BLOKEA: Elkarte sarea (Kideak eta parte-hartzea)

→ **(17G)** [Zereginei](#) dagokienez, esan dezakegu banaketa ez dela homogenea, izan ere soldatapeko lana duen elkartekide kopuru altua dago (elkarteen % 55), nahiz eta oraindik nabarmenagoa den soldatarik gabeko lanaren portzentajea (elkarteen % 66) eta erretiroa hartutakoena (elkarteen % 33,6).

→ **(18G)** Gizonen parte-hartzea azpimarragarria da, elkarteen [% 50ean](#) parte hartzen duelako, nagusiki [ikastaro eta tailerretan, irteera kulturaletan edo ibilaldietan eta hitzaldi, hizketaldi edo mintegietan.](#)



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

3. BLOKEA: Elkarte sarea (Elkarte bizi)

→ **(19G)** Bizkaiko elkarte biziaren ezaugarria dinamismoa da bilerak [egiteko maiztasunean](#). Izan ere, elkarteen % 63a astean behin edo behin baino gehiagotan biltzen da. **(21G)** Orokorrean, oso ohikoa (% 34) edo ohikoa (% 38) da elkartekideek parte hartzea.

→ **(20G)** Halaber, [asanblada](#) egin ohi da eta, normalean, urteko ohiko bilera izaten da.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

3. BLOKEA: Elkarte sarea (Elkarte bizi)

→ **(24G)** Bilerez gain, elkarte askok data adierazkor ezberdinak dituzte ezohiko ekintzak egiteko. Funtsean, hurrengoak azpimarra daitezke: Emakume langilearen eguna (martxoak 8), elkarteen % 67ak ospatzen du; atzetik, genero indarkeriaren aurkako eguna (azaroak 25) eta Gabonak doaz % 29arekin eta % 19arekin hurrenez hurren. Esan beharrekoa da elkarteen % 19ak ez duela egun adierazkorrik ospatzen.

→ **(22G)** Hizkuntzari dagokionez, elkarte gehienetan gaztelera hitz egiten da bakarrik, % 19an euskara eta gaztelera hitz egiten dira, eta % 4,5ean euskaraz bakarrik egiten dute.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

3. BLOKEA: Elkarte sarea (Elkarte bizitza)

- **(25G) ELKARREKINTZA BESTE ELKARTZE BATZUEKIN:** Bizkaiko emakume elkarteentzen % 90ak baino gehiagok elkarrekintzan dihardu beste elkarte batzuekin.
- Elkarrekintzan diharduten elkarteekin partekatzen dituzten JARDUERA EREMU nagusiak, honakoak:


	(25G-B)	(25B-C)
	LURRALDE EREMUA	GAIEN EREMUA
	PROBINTZIAKOAK % 59.7	EMAKUME ELKARKETAK % 62.9
	TOKIKOAK % 57.1	KULTURA ERAKUNDEAK % 50.5
	ERKIDEGOKOAK % 29.9	GIZARTE ERAKUNDEAK % 36.1
	ESTATUKOAK % 23.4	GKE % 20.6



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

4. BLOKEA: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

→ **(27G eta 28G)** Kontuan hartuta [Genero Politiketarako Arloak](#) 6 urteko bizia duela, Bizkaiko Emakume Elkarte ia gehienek ezagutzen dute (% 90ak baino gehiagok) eta % 82ak nolabaiteko harremana izan du harekin. **(30G)** Portzentaje berdinak (% 90,1ak) Gizon eta Emakumeen Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Foru Plana ezagutzen du.




BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

4. BLOKEA: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

(31G)

Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Foru Planaren batez besteko balorazioa



7.4
(1etik 10era)

→ (32G) Elkartearen % 46,7ak [Parekatuz Sarea](#) ezagutzen duela dio, bai hastapenetan parte hartu zutelako, bai Saretik informazioa eskuratu dutelako, edo bai ezaguna zaielako, nahiz eta oso argi izan ez zertaz arduratzen den... Horietako batzuek diotenaren arabera, gainera, CEDEMIIn orain dela gutxi egindako bileran izan dute Sarearen berri. % 8,7ak dio noizbait parte hartu izan duela Sarean.



BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

4. BLOKEA: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

→ Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeek iritziak elkarri trukatzeko, beren lan eremuaren arabera bileretan parte hartzeko, jardunaldi, ikastaro, azoketara... joateko sustatutako Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako Foroa bezalako tresna baten sorreraren helburua sendotzen hasi da. Izan ere, elkarteen % 56,5ak noizbait parte hartu izan duela adierazi du. Gainera, elkarteen % 87ak dio entzun dutela edo ezagutzen dutela foroa.




BIZKAIKO ELKARTE SAREAREN EGOERAREN AZTERKETA

4. BLOKEA: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

(34G)

GALDERA IREKIAK 34G	KASUEN %
Elkarteen arteko harremana sustatzea	% 3,6
Eskaera inprimaki ez hain konplexuak	% 4,5
Elkarteen azterketa handiagoa laguntzak ematerakoan	% 4,5
Diru-laguntza, laguntza ekonomiko gehiago	% 8,0
Ez dute iradokizunik egin	% 53,1



2001-2007 ALDERATZE PANORAMA



ALDERATZEKO DATU NAGUSIAK

Bizkaiko Emakume Elkarten Egoera 2007an, 2001ean zuenaren aldean, hitz bakarrarekin defini dezakegu:

EBOLUZIOA

Terminoak garapen aurrerakor moduan ulertzen dugu elkarten zuzkidura/baliabideei —materialak, gizakienak, ekonomikoak— dagokienez, elkarte sarearen itxuraketa/jardunari dagokionez eta administrazioarekiko kanpo harremanei dagokienez.

Eboluzio hau ikusteko 2001eko datuak hartu dira abiapuntu moduan, eta alderaketa egin da 2007an lortutako datu nagusiekin. Azkenik, elkarrekin jarduten duten eta Bizkaiko emakume elkarten egungo sarearen egoera azaltzen duten faktoreak azpimarratu dira —adina, banaketa geografikoa edo elkarten tamaina—:

1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

- 1.1. Elkarteen egoitzak ([alderaketa: datu orokorrak & 2007ko datuak lurraldeka azalduta](#))
- 1.2. Baliabide materialak ([alderaketa: datu orokorrak & 2007ko datuak adinaren eta lurraldearen arabera azalduta](#))
- 1.3. Giza baliabideak
 - 1.3.1. [Kontrataturako langileak \(alderaketa: datu orokorrak & 2007ko datuak lurraldeka azalduta\)](#)
 - 1.3.2. [Borondatzeko langileak \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)
- 1.4. Baliabide ekonomikoak
 - 1.4.1. [Baliabide propioak \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)
 - 1.4.2. [Kanpoko baliabideak \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)
 - 1.4.3. [Baliabide publikoak \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)

2. Elkarte sarearen itxuraketa eta jarduna

- 2.1. [Elkartekideen adina \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)
- 2.2. [Asanbladak egitea \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)
- 2.3. [Elkartekideen bilera \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)

3. Kanpo harremanak administrazioarekin

- 3.1. [Genero Politiketarako Arloa eta Aukera Berdintasunerako Foru Plana \(alderaketa: datu orokorrak\)](#)
- 3.2. [Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako Foroa \(2007ko datu orokorrak\)](#)




1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.1. Elkarteen egoitzak

Datu orokorrak
2001- 2007

Elkarteen aldetiko errebindikazio handienetako bat biltzeko eta beren jarduerak burutzeko lokala edukitzearena izan da. Helburu hori betetzen ari da, izan ere erakunderen batek, publiko/pribatu edo partikularrak, lagatako lokala duen elkarte kopurua % 12an hazi da



Horrek elkarteen eboluzioa uzten du agerian, elkartegintza aktiboagoaren bidean. Horrela, oinarritzkoa den baliabidea bilatzen da, lokala, beren jarduerak burutu ahal izateko.




1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.1. Elkarteen egoitzak

44

2007ko
datuak
eskualdeka



Kokapen geografikoa kontuan izanda, esan dezakegu ez dagoela lokalik gabeko emakume elkarterik Eskuinaldean, Ezkerraldean, Gernika-Bermeon eta Enkarterrietan.

Hiriburuko elkarteei dagokienez, azpimarratzekoa da hautabide ezberdinak dituzten elkarteak direla eta horietatik portzentaje altuak alokairua aukeratu duela.




1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.2. Baliabide materialak

2001- 2007
Datu
orokorrak

Elkartek esfortzu handia egin dute baliabide materialetan inbertitzean. Horrela, telefonoa da baliabide erabiliena eta teknologia berriak (ordenagailua eta Internet) aurrerakada adierazkorrena



Emakume elkartek eboluzioa jasan dute, aurrerakadak eta egokitzapena azalduz. Prozesu horretan Teknologia Berriak oinarritzkoak dira.




1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.2. Baliabide materialak

2007 adinaren arabera

Aurrerakada horiek elkartekideen artean belaunaldi gazteak dituzten elkarteetan dira nagusi. Oraindik "arraila digitala" dago adin aurreratuagoko belaunaldiez eratutako elkarteetan.



1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.2. Baliabide materialak


47

2007
eskualdeka

Teknologia Berriei dagokienez, aldea sumatzen da ordenagailua izan edo Internetera sartzeko aukerari buruz ari bagara:

➤ *ORDENAGAILU gehien dituzten eskualdeak Plentzia-Mungia, Eskuinaldea, Ezkerraldea eta Bilbo dira.*

➤ *INTERNETERAKO SARBIDEARI dagokionez, nabarmentzekoak dira Eskuinaldeko elkarteak. Horrek esan nahi du historikoki eskuratze ahalmen handiena izan duen zonalde geografikoak aurrerakada nabarmenagoa izan duela Teknologia Berrien alorrean.*



1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak


1.3. Giza baliabideak

1.3.1. Kontratatutako langileak

48

2001-2007
Datu
orokorrak

*Emakume elkarteek kontratatutako langile kopurua hazi egin da ia % 5ean,
2001eko datuaren aldean.*



Kontratatutako langile kopuruak gora egiteak esan nahi du elkarteak “profesionalizatzen” doazela, bai administrazioko lanak egiteko, bai jarduerak egiteko.



1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak


1.3. Giza baliabideak

1.3.1. Kontratatutako langileak

49

2007
eskualdeka

Ibilbide historiko handieneko elkarteak (Bilbo Handia) nahiz Durangaldeakoak dira langileak kontratatuzera jo dutenak. Aitzitik, 2007an ez zegoen langile kontrataturik Bizkaiko Eskualde ezberdinetan: Enkarterrietan, Arratia-Nerbioin, Gernika-Bermeon eta Plentzia-Mungian.




1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.3. Giza baliabideak

1.3.2. Borondatezko langileak

2001- 2007
Datu
orokorrak

Bizkaiko Emakume Elkarteen zutabe nagusia borondatezko langileek eratzen jarraitzen badute ere, beherakada sumatu da borondatezko langile kopuruan. Horrek zerikusia du —lehen ikusi dugun moduan— kontratatutako langileek gora egitearekin.



*Elkartek
“Profesionalizazioaren”
bidean jasandako
eboluzioaren
ondorioetako bat
borondatezko langile
kopuruak behera egitea
izan da*



1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak


1.4. Baliabide ekonomikoak

51

1.4.1. Baliabide propioak (kideetatik eratorritakoak)

Datu
orokorrak
2001- 2007

Kuotak ordaintzeak elkarteen baliabideen iturri nagusia izaten jarraitzen badu ere, ikus dezakegu kuotaren bat kobratzen duen elkarte kopuruak nabarmenki egin duela beherantz (% 13 gutxiago).



Eboluzioari dagokionez, barne kudeaketa hobea ikus daiteke baliabide bilaketaren alorrean. Ondorioz, kuoten bitartez fondoak biltzen dituen elkarte kopuruak behera egin du.



1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.4. Baliabide ekonomikoak


1.4.2. Kanpoko baliabideak

52

Datu orokorrak
2001- 2007

Kanpoko baliabideak 2 bloke ezberdinetan sailka ditzakegu: baliabide publikoak eta pribatuak:

- **BALIABIDE PUBLIKOEN** eskabideak —diru-laguntza publikoen bidez— erantzun positiboa izan du —lokalak lortzeak bezalaxe—, eta elkarte gehienek heltzen duten bidea da honakoa.
- **BALIABIDE PRIBATUAK** bilatzearen aukerak —erakunde pribatuak, partikularrak/doaintzak, jarduerak egitea...— gora egin du orokorrean (2001eko % 46tik 2007ko % 59,7ra).



Geroz eta iturri pribatu multzo anitzagoa bilatu eta lortzeak eboluzioa azaltzen du elkarteen autonomia handiagorantz, herri administrazioen aldetiko tutoretza gutxiagorantz bezalaxe.




1. Elkarteen zuzkidurak eta baliabideak

1.4. Baliabide ekonomikoak

1.4.3. Baliabide publikoak

Datu orokorrak
2001- 2007

BALIABIDE PUBLIKOAK lortzeak hazkuntza izan du, bai udal erakundeek emaniko diru-laguntzetan (% 3,8), bai Bizkaiko Foru Aldundiak emanikoetan (% 20,7).



Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik diru-laguntzak edo laguntzak eskuratzen dituen elkarte kopurua % 20,7an hazteak bi erakundeen arteko lankidetzaren eta elkar aditze handiagoetarako eboluzioa islatzen du.




2. Elkarte sarearen itxuraketa eta jarduna

2.1. Elkartekideen adina

54

Datu
orokorrak
2001- 2007

2007ean, elkartekideen batez besteko adina altuagoa da 2001ekoaren aldean. Horrek ez du joera islatzen, izan ere elkarte bateko kide bihurtzea erabaki pertsonala da eta bizitzaren edozein unetan eta edozein adin izanda har daiteke.



Elkartekideen batez besteko adinak une jakina islatzen du, “argazki zehatza” eta hori alda daiteke nabarmenki aurretiazko eta ondorengo instant batean.




2. Elkarte sarearen itxuraketa eta jarduna

2.2. Asanbladak egitea

55

Datu
orokorrak
2001- 2007

Asanbladak egitea elkarteen jardun handiagoa islatzen duen beste aldeetako bat da. 2007an ia % 8 hazi da.



Asanbladak egiten dituen elkarte kopuruak hazkundera izateak elkartegintzaranzko eboluzioa islatzen du. Elkartegintza horrek geroz eta esku-hartze handiagoa du barruko antolaketaren gaietan. Ondorioz, jada adierazi den moduan, hobetu egiten da elkartearen kudeaketa baliabide materialen, giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen alorrean.




2. Elkarte sarearen itxuraketa eta jarduna

2.3. Elkartekideen bilera

56

Datu
orokorrak
2001- 2007

Elkartegintzaren bizitzak dinamismo handiagoa izan du, eta elkarteen portzentaje handia hilean behin baino gehiagotan bildu da jarduerak burutzeko (% 83,7).



Elkartek izandako bileretan antzemandako maiztasun horrek eboluzioa eta garapena islatzen ditu jarduerak egiterakoan (barne antolaketa hobea), eta baita elkartekideen aldetiko parte-hartze handiagoa ere.




3. Kanpo harremanak Bizkaiko Foru Aldundiarekin

3.1. Genero Politiketarako Arloa eta Aukera Berdintasunerako Foru Plana

57

Datu orokorrak
2001- 2007

Hazkunde adierazkorra sumatzen da Genero Politiketarako Arloarekin harremana duten elkarteen artean -% 48,7- eta hazkunde arina arlo horren gaineko ezagutzaren alorrean nahiz Aukera Berdintasunerako Foru Planarenean (% 12,9).



Genero Politiketarako Arloak 2001erako jarritako helburuak bete ditu eta erreferentzia da Bizkaiko Emakume Elkarteentzat. Eboluzioa elkarteekin izandako elkarrekintzan eta Berdintasunaren gainean egindako baliabideak hedatzean burutu da. Horien artean Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Foru Plana egongo litzateke.




3. Kanpo harremanak Bizkaiko Foru Aldundiarekin

3.2. Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako Foroa

Datu orokorrak 2007

Zentzu horretan, Genero Politiketarako Arloak lortu beharreko helburu berriek zerikusia izan beharko dute Aukera Berdintasunerako Foroan izandako jarduerak eta gaiak hedatzea lortzearekin, burutzen diren jarduerak nahiz ateratako ondorioak ez direla sakontasunez ezagutzen antzeman baita.



DATU KUALITATIBOAK



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

1. Taldeko nortasunaren erduetako bat elkartegintzaren bidez burutu daiteke. Kontzeptu horrek hainbat esanahi eta ezaugarri biltzen ditu, erakundetze eta gizarte ezagutarazte prozesuen berezitasun eta formak gorabehera.

Adibidea

*Hainbat elkarte, haien ordezkariekin elkarrikusketa egin ondoren, antolamendu hierarkikoaren arazoia **administrazioaren ezarpena** dela adierazi dute bakarrik, hark karguak izendatzera behartu dituelako eraketa estatutuetan. Halaber, elkarte batzuk onartzen dute elkarte moduan antolatze erabakiaren zergatia ekonomikoa dela bakarrik, horri esker irabazi asmorik gabeko erakundeentzako jarritako **diru-laguntza publikoak eta pribatuak** eskuratzeko aukera dutelako.*

ELKARTEGINTZA TALDEKO NORTASUNA BIDERATZEKO MODU BAT DA, GIZARTEAREN PARTE-HARTZEAREN BITARTEZ



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

2. Emakume elkarteak maila ezberdinetan sailka daitezke, nahiz eta talde ezberdinak **norberaren errealizazio pertsonala – gizarte esku-hartzea** izenekoaren barruan biltzen dituen maila garrantzitsua den. Eskala horrek eratutako elkarte sarea erakusten du, alde batera utziz administrazioaren aldetik eraketa formalik ez duten talde moduan agertzeko beste eredu batzuk.

*Adibidea: Ezaugarri horien arabera, **norberaren errealizazio pertsonalari** buruzkoak (ezaugarri zehatzak dituzten emakume moduan: zentro kulturalak eta prestakuntzakoak –Peñascal, Roda-, aisialdi eta denbora librekoak —Amaisia—, norberak bere burua ezagutzekoak, banakako balio eta aldean garapena, amatasuna kasu —Haurdun—) eta **gizarte esku-hartzeari** buruzkoak (beren eskubide propioak aldarrikatzen dituzten emakumeak —Aldarte— edo parte hartzen —Aritu— edo ordezkatzeko dituztenenak aldarrikatzen dituztenak—Margotu—) egongo lirateke. Erdibideko tokietan geratzen dira bi aldeak dituzten elkarteak (arazo zehatzen inguruan antolatutako taldeak, pertsonen behar eta baliabideak hobetuz eta gizartearen aldaketa dimentsio ezberdinetan bultzatuz —Acambi—, edo norberan egin beharreko bilaketak arte dimentsioen bitartez bideratzen dituztenak —Aluen Poza—.*

BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZA NORBERAREN ERREALIZAZIO PERTSONALAREN ETA GIZARTE ESKU-HARTZEAREN ARTEAN KOKATZEN DEN ESKALAN ANTOLATZEN DA



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

3. Kontuan hartu beharreko aldagai ezberdinak daude Bizkaiko elkartegintzaren testuingurua aztertzerakoan. Horietako bat elkartekideen **status sozioekonomikoa** litzateke, kokapen zonaldeari eta egiten duten jarduerari lotuta.

Adibidea

«Roda elkarte kulturala» (Areetan kokatutakoa) eta «Peñascal prestakuntza zentroa» (izenak berak adierazten duen auzoan kokatuta) helburu komunak dituzten bi elkarte dira (prestakuntzakoa, denbora libre erabiltzearena eta emakumeentzat taldeko jarduerak sortzearena). Elkarte horiek status sozioekonomikoaren irizpideak zeharkatzen ditu nabarmenki. Horren arrazoia, neurri handi batean, jatorriko zonaldea da. Bietatik lehenengoaren egoitza dohaintzan elkarteari lagatako etxe bat da; bigarrenarena, berriz, gizarte etxe bat da eta horren gaineko erabilera genero faktoreak zehazten du (etnografikoki, zentroa bisitatzerakoan banaketa zorrotza dago emakumeak josten ari diren gizarte etxearen eta gizonezkoek kartetan jolasten duten gizarte etxearen artean –taberna, gainera “adinekoen” zentroa ere bada-). Lehenengoaren kasuan, jardueren maila kulturala eta artistikoa altuagoa da eta eskaintza nabarmenki zabalagoa dago, bertaratzen direnen eskuratze ahalmena, denbora libre eta jarduerak egiteko lortzen dituzten finantzazio paraleloak handiagoak direlako. Bigarrenean, jarduerak tradizionalagoak dira eta moden araberakoak izaten dira (adaibidez, gimnasiatik yogarako bidea egitea). Xedea bertaratzen direnentzako gastuak murriztea da, ez dago behar adina toki jarduera asko egiteko eta bertaratzen diren emakumeak zaharragoak dira nahiz eta jarduera horiek etxe lanekin bateratzeko gai diren.



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

Gainera, belaunaldiaren aldagaiak ere eragina du neurri handi batean. Horretarako, kontuan izan behar dira ñabarduna batzuk Elkarteak aztertzerakoan:

- *Belaunaldia, batzuetan, bizitzako ziklo berdinekoak izatearen menpe egoten da (alarguntasuna adibidez – Emakume Alargunen Elkarte-, edo haurdunaldia eta amatasuna —Haurdun—, gehienetan adin tarte antzekoetara lotuta).*
- *Orokorrean, badira adin guztiei zuzendutako elkarteak eta baita adin tarte zabaleko emakumez eratutakoak ere. Aitzitik, belaunaldi zehatzak dira eta elkartearen barruan garatutako gizarteratzeari ondotik eratorritakoa da hori. Izan ere, ezaugarri komunak dituzten emakumeek esku hartzeko jarduerak dira. Horiei esker belaunaldiak parekatu egiten dira —Mujeres del Mundo—.*
- *Elkarte batzuk historikoki eboluzionatu dute, emakume gazteez eratuta izatetik emakume helduez eratuta izatera igaro arte (Aluen Poza, Aldarte, Dokumentazio Zentroa). Horrek argi uzten du soziologikoki batzuen edo besten parametroak ezartzeko muga oso hauskorra dela eta, batzuetan, elkartegintzan izandako esperientzia pilotzearen ondorioei heldu behar zaiela.*
- *Belaunaldien artean ezberdintasun handiena egiten duten elkarteak, hau da, emakume gazteez edo emakume helduez bakarrik eratutakoak osagai ideologikoa eta gizarte mugimenduak dituztenak dira –elkarte feministak, kasu-, denbora librea betetzean oinarritzen direnak bezalaxe. Azken horien kasuan, adineko emakumeen sektore jakin bati zuzendutako antolamendu egitura eta jarduerak diseinatzen dira.*



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

Belaunaldiak **eragina** du sortzen ari diren emakume gazteen talde berrietan.

- *Eszeptizismo handiagoa erakundeekiko.*
- *Praktikoagoak dira.*
- *Konpromiso ideologiko handikoak dira.*
- *Antolaketarako eta kudeaketarako beste hautabide batzuk dituzte.*
- *Burokraziaren eta administrazioaren sistemak oso ondo ezagutzen dituzte, beraz, elkarte moduan sortzea gizarte eta ekonomi baliabide moduan erabiltzen da.*
- *Baliabide berrien gaineko ezagutza zabala dute: IKT, hizkuntzak, prestakuntza orokorra.*
- *Mugikortasunaren gaineko ikuspegia zabalgoa da eta sareak ezartzen dira toki mailatik haratago.*

Aitzitik, **ez ditu maila kulturean eraldatzen** aurretik eratutako taldeak, parte-hartze tradizionalen oinarriturikoak hain zuzen, eta gaia edo jarduteko eremua edozein izanda ere.

BELAUNALDIA OINARRIZKO ALDAGAI DA ELKARTE SAREAN, EGUN JAZOTZEN ARI DIREN ERALDAKETAK AZTERTZERAKOAN



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

4. Beharra kontzeptu abstraktua eta polisemikoa da, eta elkarteen **taldeko nortasunaren adierazpenean** gauzatzen da. Emakume taldeen behar nagusia errebindikazioen pertsonalizazioa da, eta horiek sinbolikoak izan daitezke neurri handiago edo txikiagoan (beti kontuan hartuz finantzazioa urria dela eta baliabideak eskasak, eta elkarte bakoitzaren esperientziak ekartzen duen gizarteko eta taldeko plusak definitzen saiatzeko lehiatu behar direla).

Pertsonalizazio hori beren nortasunaren gainean egiten duten **tematizazio mailarekin** zerikusia duen eskalan koka daiteke, **genero ikuspegitik**.

Adibidea: «elkarte guztiek behar ezberdinak dituzte» eta eransten da: «baina administrazioak berdinak izango bagina bezala jarduten du».

EMAKUME ELKARTEEK ADIERAZITAKO BEHARREK ARGI UZTEN DUTE TALDE BAKOITZAREN GAINKO EZAGUTZA PERTSONALIZATUAN DEFIZITA DAGOELA



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

5. *Inter eta intra ezberdinek* agerian uzten dute «emakume elkarteak» izenpean egin nahi den administrazio kategoriaren homogeneotasuna komenigarritasun burokratikoa besterik ez dela. Alde honi nabarmenki ikus daiteke horietako bakoitzaren beharren adierazpenean. Behar horiek talde bakoitzaren helburu eta ezaugarrien definizio eta sintesi zabaleko termino moduan eratzen dira.

Aitzitik, **generoaren** inguruko definizio horrek, arbitrariotzat har daitekeena, eraldaketak ekartzen ditu bi dimentsiotan gizarte mailan genero ikuspegiaren eguneroko barneratzean: prestakuntzaren aurretik egin beharrekoan eta estrategia politikorako hitzaldi gogartean.

ELKARTEKO KIDEEN ARTEKO ALDEEK NAHIZ TALDE EZBERDINEN ARTEKOEK EMAKUME ELKARTEEN EREMUKO HETEROGENEOTASUN ZABALA AZALTZEN DUTE



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

BI JOERA DAUDE ELKARTEEK GENERO IKUSPEGIA BARNERATZEKO MODUAN, BEREN JARDUN PROPIOAREN BIDEZ BARNERATUTAKOA ETA HITZALDI BIDEZ EGINIKOA GOGOARTE MAILA EZBERDINEN BIDEZ

6. Erakundeekin lotzeko oinarrizko modua diru-laguntza publikoena da. Horren bidez, administrazioko arlo ezberdinekin harremanak eratzen dira ziklikoki (udalekin, aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin edo estatu mailako gobernuarekin, Emakunde bezalako erakunde zehatzekin...), eskaera homogeneoak betez. Lotzeko bide horrek logika tradizionala eta sinplea azaltzen du hasiera batean, baina kontuan hartzeko ondorioak ekarri ditu jada:

- *Erakunde-elkarte komunikazioaren norabide bakarraren zentzua.*
- *Inprimakiak estandarrak izatea, beharrak pertsonalizatzea posible izan gabe.*
- *Harremanaren iragankortasun zehatza, eskaera berritzailekoan.*
- *Administrazioaren lengoaiaren konplexutasuna biztanleen multzo batentzat.*



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

Aitzitik, diru-laguntzen bidezko harremanetik haratago, egoera horrekin azpimarratzen dena elkarteek erakundeen arloaren gainean duten ezagutzen mozketak da nolabait. Horrela, elkarteek batera adierazitako tratua pertsonalizatuaren beharra erakundeek konpondu beharreko oinarrizko aldeetako bat da.

Distantziaren eta ezjakintasunaren pertzepzio hori elkar ezagutzea ahalbidetuko duen elkarrekintzako estrategiaren bidez konpon daiteke. Horrek, gainera, parte-hartze kolektiboa ahalbidetuko du politika publikoak egiterakoan ikuspegi kritikotik. Horrek generoaren ikuspegiak gizartea zeharkatzearen beharra barneratzen du.

ERAKUNDEEK ELKARREKINTZA SUSTATU BEHAR DUTE ELKARTEEKIN. HORRETARAKO, JARRAI PEN PERTSONALIZATUA EGITEKO SISTEMA SORTUKO DA, BI NORABIDEETAKO KOMUNIKAZIOA JORIA IZATEA BERMATUZ



ZER ERAGIN DUTE BELAUNALDI BERRIEK BIZKAIKO EMAKUME ELKARTEGINTZAN?

INFORMAZIO KUALITATIBOA

7. Erakundeek teknologia berriak jartzearen aukera hausnartu behar da —batez ere belaunaldi gazteenek erabili eta barneratutakoak—, gizarte esku-hartzeko neurriak proposatzeko oinarrizko ardatz moduan. Horretarako, kontuan izan behar da belaunaldien arteko arraila, eta baita erakundeek baliabide teknologikoak martxan jartzearen beharra ere. Horrela, gizartearen aldaketak sartzea gain hartuko da, orokorrean, gizarte parte-hartzearen alorrean.

ELKARREKINTZA ETA ELKARREKIKOTASUN ARLO HORIEK EZARTZEKO AUKERETAKO BAT TEKNOLOGIA BERRIEN EZARPENETIK ATERA DAITEKE, BETIERE, BIZKAIKO TESTUINGURUAN BELAUNALDIEN ARTEAN DAGOEN ARRAILA KONTUAN HARTUTA.



GOMENDIOAK ETA NEURRIAK



ERAKUNDEEK ELKARTEEN MUNDUAN ESKU HARTZEKO NEURRIAK: GOMENDIO ETA IRADOKIZUN SINTESIA

- 2001ean, Bizkaiko Foru Aldundiak baliabidea ezarri zuen Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako Foroaren sorrerarekin. Bertan, elkarteek iritziak, esperientziak, ezagutzak... elkartruka zitzaketen, mekanismo dinamikoa ezagutzearekin batera: Aukera Berdintasunerako Foru Plana.
- Bizkaiko Emakume Elkarteek ezagutzak eta lankidetzak egoki bihurtzen du baliabide hau harreman iraunkorra ezartzeko bai elkartearen artean, haien gaia dena dela ere, bai Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Hori dela eta, egingo ditugun gomendio eta iradokizunek zerikusia dute, neurri batean, Aukera Berdintasunerako Foroan egindako jarduerak eta jorratutako gaiak hedatzea lortzearekin Bizkaiko Emakume Elkarte guztien artean.
- Gainera, Bizkaiko elkarte sarean antzemandako gabezia batzuk konpontzera zuzendutako beste gomendio batzuk egingo ditugu.



ERAKUNDEEK ELKARTEEN MUNDUAN ESKU HARTZEKO NEURRIAK: GOMENDIO ETA IRADOKIZUN SINTESIA

1. NEURRIA



Elkarte guztiei bilera bakoitzeko gai zerrendaren nahiz aurreko bileretan ateratako ondorioen gaineko informazioa helaraztea, bai parte hartu dutenei, bai parte hartu ez dutenei. Helburu horri Foroan parte hartu dutenak erantsi behar zaizkio, ordezkatzen dituzten gainerako elkarteei hartutako ezagutzak jakinaraziz.

2. NEURRIA



Belaunaldi helduagoko elkarteetan Teknologia Berriak erosi eta erabiltzea sustatzea, batez ere Enkarterrietan, Arratia-Nerbioin, Durangaldean.



ERAKUNDEEK ELKARTEEN MUNDUAN ESKU HARTZEKO NEURRIAK: GOMENDIO ETA IRADOKIZUN SINTESIA

3. NEURRIA



Foroaren gaineko informazioa Internet bidez eskura daitekeela gogorarazi.

4. NEURRIA



Markina-Ondarroa Eskualdean emakume elkarterik ez egotea argitzen duten faktoreak aztertu eta neurri zuzentzaileak ezarri.

5. NEURRIA




Lokalik ez duten elkarteei egoitza bilatzen laguntzea: Arratia-Nerbioi, Durangaldea, Plentzia-Mungia eta Bilbo.




GRAFIKOAK ETA TAULAK




Elkartearen eraketa urtea



Elkartearen kokapen geografikoa




Elkarteen kokapen geografikoa eskualdeka




Elkartearen eraketa urtea kokapen geografikoaren arabera


	1980 baino lehen	1980tik 1989ra	1990etik 1999ra	2000tik 2006ra	Guztira
Bilbo	% 5,70	% 28,60	% 31,40	% 34,30	% 100,00
Beste udalerrri batzuk	% 1,40	% 11,30	% 63,40	% 23,90	% 100,00




Elkartearen sailkapena gai arloaren arabera




Elkartearen jarduteko lurralde eremua




Elkartearen jarduteko lurralde eremua







Elkartearen egoitza eskualdeka




Elkartearen baliabide materialak




Elkartearen baliabide materialak, elkartekide gehienen adinaren arabera



Elkarteen baliabide materialak elkarteen kokapen geografikoaren arabera




Grafikoak eta taulak




Kontrataturako langileak eta borondatezko langileak

LANGILEAK	KONTRATATUTA	BORONDATEZKOAK
Bai	% 18,9	% 87,40
Ez	% 77,5	% 5,40
Ed/Ede	% 3,6	% 7,20
	% 100,0	% 100




Kontratututako langileak eta borondatezkoak eskualdeka



Kontratatutako eta borondatezko langile kopurua



PERTSONEN %a

	KONTRATATUTA	BORONDATEZ
1etik 3ra	% 18,9	% 87,40
4tik 10era	% 77,5	% 5,40
10etik gora	% 3,6	% 7,20
	% 100,0	% 100




ELKARTEAREN AURREKONTUA 2006an (AURREKONTUA EZA GUTZEN DUTEN ELKARTEETAN)	%	metatutako %a
2499 €-ra arte	% 10,7	% 10,70
2500 €-tik 4999 €-ra	% 20,2	% 31,00
5000 €-tik 9999 €-ra	% 22,6	% 53,60
10.000 €-tik 14.999 €-ra	% 16,7	% 70,20
15.000 €-tik 19.999 €-ra	% 3,6	% 73,80
20.000 €-tik 39.999 €-ra	% 10,7	% 84,50
40.000 € edo gehiago	% 15,5	% 100,00
	% 100,0	


ELKARTEKIDEEK KUOTAREN BAT ORDA INTZEN DUTE	%
Bai	% 73,0
Ez	% 24,3
Ed/Ede	% 2,7
	% 100,0




Zein iturritik datoz elkartearen baliabide ekonomikoak?



Laguntza edo diru-laguntza eman zuen erakunde publikoa




Zein jarduerarako erabiltzen da laguntza edo diru-laguntza



* Ez dira % 3a baino gutxiago jaso duten jarduerak adierazi.




ELKARTEKIDEEN ADINAREN BATEZ BESTEKO BANAKETA	%	metatutako %a
25 urtetik behera	% 2,78	% 2,78
26 urtetik 35era	% 12,76	% 15,54
36 urtetik 50era	% 32,03	% 47,57
51 urtetik 65era	% 36,66	% 84,23
65 urtetik gora	% 15,76	% 99,99
	% 99,99	




Grafikoak eta taulak


	25 urtetik behera	26 urtetik 35era	36 urtetik 50era	50 urtetik 65era	65 urtetik gora
Kide 1etik 49ra	% 0	% 50	% 32	% 18	% 25
50 kideetik 99ra	% 100	% 13	% 8	% 12	% 17
100 kideetik 149ra	% 0	% 13	% 16	% 12	% 17
150 kideetik 199ra	% 0	% 25	% 4	% 21	% 8
200 kideetik 249ra	% 0	% 0	% 4	% 3	% 25
250 kideetik 299ra	% 0	% 0	% 0	% 6	% 0
300 kideetik 499ra	% 0	% 0	% 12	% 18	% 0
500 kideetik 999ra	% 0	% 0	% 20	% 6	% 8
1000 kide edo gehiago	% 0	% 0	% 4	% 6	% 0
	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100




LANA




Elkartekideen lan nagusia




Gizonek parte hartzen al dute elkarteetan?




Gizonen parte-hartzea duten jarduerak




Elkartekideak biltzen diren maiztasuna



Zer maiztasunarekin egiten dira asanbladak?




Elkarteak adierazkor izateagatik ospatzen duen eguna




* % Iaren azpitiko balioak kanpoan utzi dira.




Gehien bat erabiltzen den hizkuntza




Zure elkarteak ba al du harremanik beste erakunderen batekin?




Nongoekin?




Zein gai alorrekoak?




Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiketarako Arloa




Parekatuz Sarea



Gizon eta Emakumeen Arteko Aukera Berdintasunerako Foroa







**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**

Ahaldun Nagusiarer
Kabinetea
Gabinete del
Diputado General